

**UEUren soziolinguistika
Sailetik eskatu zitzaigun
Nafarroan dauden
euskararen aldeko
mugimendu sozialen
zeregina eta artikulazioa
aztertzea eta
etorkizunari begira zer
nolako prozesua eta
zereginak planteatuta
dauden adieraztea, eta
gehien bat OINARRIAK
plataformaren prozesua
eta egituraketa
adieraztea. Garatu dugun
artikulu honetan 1995eko
uztailean UEUn
emandako hitzaldia da.
Gaia bere inguruan behar
bezala kokatu ahal
izateko egoki iruditu
zaigu Nafarroako egoera
soziolinguistikoaz eta
politiko-
administratiboaz azaleko
azalpen batzuk ematea.**

EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDU SOZIALAREN ZEREGINA ETA ARTIKULAZIOA ETORKIZUNEAN: EDUKIAK ETA EGITURAK

Mikel Arregi eta Elena Etxalar
Oinarriak Plataformaren partaideak

SARRERA

UEUren soziolinguistika Sailetik eskatu zitzaigun Nafarroan dauden euskararen aldeko mugimendu sozialen zeregina eta artikulazioa aztertzea eta etorkizunari begira zer nolako prozesua eta zereginak planteatuta dauden adieraztea, eta gehien bat OINARRIAK plataformaren prozesua eta egituraketa adieraztea.

Garatu dugun artikulu honetan 1995eko uztailean UEUn emandako hitzaldia da. Gaia bere inguruan behar bezala kokatu ahal izateko egoki iruditu zaigu Nafarroako egoera soziolinguistikoaz eta politiko-administratiboaz azaleko azalpen batzuk ematea.

EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

1991ko zentsuan agertzen diren datuak jarraian aipatzen dira¹.

		Guztira	Ulertu		Mintzatu		Irakurri		Idatzi		Batuketa	Erdaldunak
			Ongi	Nekez	Ongi	Nekez	Ongi	Nekez	Ongi	Nekez		
Nafarroa	Kopurua	500.250	59.138	23.705	51.147	20.096	35.487	24.094	29.324	21.435	83.245	417.005
	Portzentaiak	%100	%11,8	%4,7	%10,2	%4	%7,1	%4,8	%5,9	%4,3	%16,6	%83,4
Eremu euskalduna	Kopurua	53.646	35.041	4.078	32.766	4.233	19.725	10.083	15.965	9.103	39.156	14.490
	Portzentaiak	%10,7	%65,3	%7,6	%61,1	%7,9	%36,8	%18,8	%29,8	%17	%73	%27
Eremu euskalduna	Kopurua	268.255	21.916	16.910	16.696	13.555	14.275	12.182	12.102	10.625	39.148	229.107
	Portzentaiak	%53,6	%8,2	%6,3	%6,2	%5,1	%5,3	%4,5	%4,5	%4	%14,6	%85,4
Eremu ez euskalduna	Kopurua	178.349	2.181	2.717	1.685	2.308	1.487	1.829	1.257	1.680	4.941	173.408
	Portzentaiak	%35,7	%1,2	%1,5	%0,9	%1,3	%0,8	%1	%0,7	%0,9	%2,8	%97,2

Aurreko taulan agertzen diren datuetan ikusten da Nafarroan %10,2k aitortzen duela ongi mintzatzen dela. Datu hau bere horretan aztertzen badugu ematen du euskara desagertzera kondenatua dagoen hizkuntza dela. Baina euskararen prozesua zein den ikusi ahal izateko bi datu begiratzea aski da:

-Eskola adina dutenen artean %15ak aitortzen du euskaraz ongi hitz egiten dutela (Beraz, media baino 4,5 puntu gehiago).

- 1994-95 ikasturtean 3 urteko haurren matrikulazioa egiterakoan ia % 25 D ereduan matrikulatu da, hau da, Nafarroako media baino 15 puntu gehiago).

Datu hauek aztertzean euskal hiztunak irabazten ari direla aise ikusten da. Kontuan hartzen badugu instituzionalki euskarari behin eta berriro oztopoak jartzen zaizkiola, argi ikusten da gizarte mailan aldeko erantzunak ematen direla. Dena den, jarrera hau eta mugimendu euskaltzaleen artikulazioa momentuz ez dator bat (ahalegin handienak irakaskuntzan egin dira eta gizarte mailako artikulazioa eta euskaldunen konpaktazioa hastapenetan daude oraindik).

MARKO LEGALA

1982an Foruaren Hobetzeari buruzko Lege Organikoa onartu zen. Lege honen 9. artikuluan zera esaten da: «Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Euskara ere hizkuntza ofiziala izanen da Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru Lege batek eskualde horiek zehaztuko ditu».

1) EUSKARA NAFARROAN, 1995, 1991ko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu sozio-linguistikoak, Nafarroako Gobernu a.

«Euskal hiztunak irabazten ari direla aise ikusten da. Kontutan hartzen badugu instituzionalki euskarari behin eta berriro oztopoak jartzen zaizkiola, argi ikusten da gizarte mailan aldeko erantzunak ematen direla. Dena den jarrera hau eta mugimendu euskaltzaleen artikulazioa momentuz ez dator bat»

Foru Lege hori 1986ko abenduan onartu zuen Nafarroako Legebiltzarrak. Lege honen onarpena oso kritikatu izan zen Nafarroako euskaldunak bigarren mailako hiritartzat hartu zituelako. Hortaz gainera Administrazioaren esku uzten zuen zerbait egiteko ahalmena baina ia ez dio agindurik ematen euskaldunen eskubideak bermatzeko momentuan.

Auzi honek ere euskararen aldeko mugimendu sozialen iharduera baldintzatu du. Mugimendu hauek sortzen ahal dituzten proiektu eta plangintzak bigarren mailara pasatzen dira maiz, lehentasuna hartzen baitute euskarak eta euskaldunek jasaten dituzten erasoak salatzeak eta Administrazioak hiritarren hizkuntz eskubideak berma ditzan eskatzeak.

HISTORIA

Plataformaren sorreraz hitz egin baino lehen komeni da Historia pixka bat egitea. Nafarroan euskararen aldeko mugimenduak koordinatzeko eta indartzeko saio bat baino gehiago egin dira. Aipagarriena 1986an Euskararen Aldeko Batzarra (EABA) da. Urte horretan Euskararen Legearen proiektua aurkeztu zen Nafarroako Legebiltzarrean. Euskaldun eta euskaltzale guztiek salatu zuten proiektu hori, Nafarroako euskaldunak bigarren mailako hiritartzat hartzen baitzituen eta Normalizazio legea izan beharrean euskaldunen hizkuntz eskubideak baztertzea bilatzen zuelako. EABAk gizarte mailan egindako salaketek oihartzun izan zuten.

Salaketa kanpainak bukatu zirenean EABAREN partaideen artean taldearen egituratzea eztabaidatu zen. Han zeuden talde gehienek partaideek argi ikusi zuten antolakuntza iraunkorraren beharra. Hautsi nahi zen ordurarte eramaten zen dinamikarekin, hau da, euskarari eraso larri bat egiten zitzaionean elkartzearena, kanpaina bukatzen zenean talde bakoitzak bere gauzeekin segitzen baitzuen. Gizarte mailan oihartzuna lortzen zen baina jarraipen ezak oztopatzen zuen zerbait lortzeko aukera. Hala ere, ez zen gauza handirik sortu taldeek zituzten diferentziak gainditu ez zirelako.

Hurrengo urteetan ez zen aldaketa handirik eman, baina 1990.eko urrian euskaldunen kontrako bi erabaki polemiko hartu zituzten Erakundeek:

a) Urte horretan Nafarroako Gobernuak lehiaketa antolatu zuen Irrati berriei legeztatze lizentziak emateko. Bi irrati euskaldunak (Euskalerrria irrati Iruñean eta Xorroxin irrati Baztanen) aurkeztu ziren, baina ez bata ez besteak ez zuten lizentziarik lortu. Euskaldunen artean salatu zen hori, emititzeko lizentziak lortzea euskararen normalizazioan urrats handia

zelako.

b) Nafarroako Unibertsitateak Magisteritzan zegoen euskal lerroa kentzea erabaki zuen. Euskararen normalizazioan irakaskuntza zutabe nagusietariko bat da, beharrezkoa zen, eta da, Unibertsitateetik profesional euskaldunak ateratzea. Horregatik Nafarroako euskaldun eta euskaltzale gehienek erabaki hau salatu zuten.

Salaketa kanpaina bukatu eta gero ikusi zen Plataformaren beharra. Lehenengo bileretan talde guztiak ados jarri ziren gauza batean: Hautsi behar zen eraso-salaketa dinamika horrekin. Indar handia gastatzen zen kanpainak antolatzen baina jarraipenik ez zutenez emaitzak oso eskasak ziren.

Beraz, eztabaida prozesu luze baten ondoren 1991.eko apirilean gauzatu zen OINARRIAK Plataforma.

OINARRIAK PLATAFORMAREN SORRERA ETA EGITURAKETA PROZESUA

- OINARRIAK Plataformaren sorreran bildu ziren euskararen inguruan lan egiten edo sentsibilizazio berezia duten erakunde, talde eta pertsonak.

- Plataformaren egitura, partaideak. Plataforma sortu baino lehen egindako saio guztietan argi ikusi zen euskalgintzan helburu, egitura eta esparru ezberdinak dituzten taldeak daudela. Horregatik proposatu zen Plataforma esparruka banatzea lana era egokiago batez egiteko, hori bai, talde guztien arteko bateratasuna eta lankidetzat hautsi gabe. Hauek dira antolatu ziren arloak:

1.- Administrazio arloa: Udal Euskara Teknikarien Sarea, Marmari Taldea (Nafarroako Gobernuak langile euskaldun eta euskaltzaleak biltzen dituen Taldea), Giltza (gauza bera Iruñeko Udaletxean), Ozenki (Telefonikako langileen Taldea), Unibertsitate Publikoko Euskara Teknikaria.

2.- Helduen Euskalduntzea: AEK, IKA, Nafarroako Gobernuak Helduen Euskalduntzerako Ikastegiko irakasleen ordezkariak.

3.- Irakaskuntza: Sindikatuak (STEE, LAB), Ikastola eta Eskola publikoetako ordezkari batzuk, Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskal lerroko ikasleak.

«Nafarroan euskararen aldeko mugimenduak koordinatzeko eta indartzeko saio bat baino gehiago egin dira. Aipagarriena 1986an Euskararen Aldeko Batzarra (EABA) da»

**«Talde guziek bilatu
zuten zerk elkartzen
zituen eta ahalegindu
ziren bereizten ahal
zituzten gauzak alde
batera uzten. Argi
zegoen arlo bakoitzean
iritzi ezberdinak
zeudela, gainera
ordurarte egindako
saioen porrota
suertatzen zen
ezberdintasun hoiek
gainditzen ez
genekielako»**

4.-Komunikabideak:Euskalerrria eta Xorroxin irratia.

5.-Euskal Herrian Euskaraz

PLATAFORMAREN HELBURUAK

Arlo bakoitzak landu zuen zeintzuk ziren hizkuntzaren normaltasunera iristeko ezinbestekoak ziren puntuak. Ondoren landutako proposamenak talde guztien artean eztabaidatu ziren eta arestian erran dugun bezala, 1991ko apirilean OINARRIAK deituriko agirian (plataformak izen berbera hartu zuen) gauzatu ziren.

Agiriak sarrera bat eta 23 puntu ditu, bost arlotan banatuta. Sarreran plataformaren filosofia adierazten da: euskara nafar hizkuntza da, egoera larrian dago eta denon adostasuna eta kontsentsua behar da hizkuntzaren normalizazioa lortu ahal izateko. Arloak honela banatuta daude (puntuak eduki zehatza jakiteko ikus. BAT-SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA 9, 1993ko apirila, 75-81 orr.):

- Administrazioa eta zerbitzu publikoak.
- Irakaskuntza.
- Helduen euskalduntze alfabetatzea.
- Komunikabideak.
- Gizarteak.

Talde guztiek onartu zuten agiria eta ondoren Nafarroa mailako Batzorde Orokorra egin zen agiria aurkezteko. Batzarre honen onarpena lortu zen eta erabaki zen lanean hastera.

Egin ziren lan eta plangintzak azaldu aurretik komenigarria da sakontzea talde guztiek eta Batzarre Orokorrean behin eta berriro aipatzen zen hitz batean, Kontsentsu hitza, hain zuzen ere. Nola erabaki eta onartu ziren. Oso garrantzitsua izan zen kontzeptu hau lortu diren gauzak bide horretatik iritsi direlako. Talde guztiek bilatu zuten zerk elkartzen zituen eta ahalegindu ziren bereizten ahal zituzten gauzak alde batera uzten. Argi zegoen arlo bakoitzean iritzi ezberdinak zeudela, gainera, ordurarte egindako saioen porrota suertatzen zen ezberdintasun horiek gainditzen ez genekielako.

ORAIN ARTEKO LANAK

Lehenengo urteko lana arestian aipatutako artikuluan (BAT-SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA 9) azaltzen da. Ondorengo lerroetan,

eta laburki, egindako saio batzuk azaltzen dira. Lan zehatzak ez dira azaltzen.

Sortu zenetik gorabeherak izan ditu ikasturteka funtzionatu duen talde honek. Hala ere, bilerak iraunkorki burutu dira astero garai batzuetan eta 15ero beste batzuetan.

23 puntuen artean lehentasunak markatu behar zirelakoan komunikabideen arloari eman zitzaion lehentasuna. Horrela, ETBren kaptazioa zein irrati euskaldunen legalizazioa lortzekoari begirako pausoak planteatu ziren.

Bestalde, Vascuencearen Legearen aldaketak zer esan handia sortu zuen taldean bertan. Izan ere, ezin dugu ahaztu OINARRIAK-ek ikuspegi ezberdineko taldeak biltzen dituela eta horrek nolabait «moteldu» egiten du funtzionamendua eta berehalako erabakiak hartzea, hartu beharreko ekinbidea, edozein izanda ere, kontsentsuatu izan behar du eta. Garai hartan aldaketarako zeuden proposamen ezberdinen eta hauek eskatzen zuten neurrien aurrean taldeak ez zuen gehiegi sakondu publikoki, jakina. Zabalduetako mezua hauxe izan zen: euskara diskriminaturik egonda, egoera honekin bukatzeko eman behar ziren pausoak ahalbideratuko zituen legea behar zela, Nafarroa osoan euskarak zituen beharrei erantzun zien legea hain zuzen ere eskatzen zuen OINARRIAK taldeak.

Honez gain, udaletxeetan mozioak, alderdiekin bilerak, bigarren agerraldia eta abar egin ziren.

Ekimen hauek guztiak prentsan agertzeko parada eskaini zuten baina ez zen lortzen ez taldearen finkapena (parte hartze eta inplikazioari dagokionez) ez erabateko errekonozimendua gizarte mailan.

Hori zela eta, pasa den ikasturtearen bukaeran, duela urtebete, taldea bultzatuko zuen plangintza baten diseinua egin zen, lana eraginkortzeko asmoz. Izan ere, taldeak «bizirik» jarraitzen zuen baina egindako lanaren islada ez zen antzematen.

Plangintza arloz arloko funtzionamenduan oinarritzen zen, asteroko bilerak nolabait alde batera utzita eragin zabalagoa lortuko zuten lanetan zentratutik. Horrez gain, zenbait pertsonen koordinatzeko ardura hartu zuten.

Hala ere, paperean polita izan zitekeen plangintzak errealitate gordinarekin egin zuen topo. Batetik, hasieran aipatu dugun partaide guztien zerrendari begiratuz gero, errealitate anitzeko taldeek osatzen dutela argi dakusagu.

«Pasa den ikasturtearen bukaeran, duela urtebete, taldea bultzatuko zuen plangintza baten diseinua egin zen, lana eraginkortzeko asmoz. Izan ere, taldeak «bizirik» jarraitzen zuen baina egindako lanaren islada ez zen antzematen»

«EKBrekiko harremanak utziak genituen aspaldian, bertako partaideak izanda ere, bileretara joateko zailtasunak izan baitira. EKBk iraunkorrean parte hartzeko saiakerak egitearen beharra plazaratu zuen taldean eta bertan egoki ikusi ere»

Hauetako batzuk egoera txarrean daude ordezkariak aportazioa eta inplikazioa maila pertsonalean egiten dutelarik. Beste batzuek ez dute parte hartzen ekintza puntualetan ez bada. Bestetik, arloz arlo egindako banaketa ez zen oso errealia izan zenbait kasutan (Helduen Euskalduntze Alfabetatzea hezkuntzan sartu zen).

Horrek guztiak plangintzaren porrota ekarri zuen kurtso hasieran taldearen egoera okerrera egin zuelarik. Baina ikasturtean zehar gertaturiko zenbait arazok taldea lanean jarri zuen berriro (Euskalherria Irratiaren afera, Mapa eskolarra, AEK eta IKArri ezarritako murrizketak).

Prentsaurreak, alderdiekin bilerak, sinaturiko agiria, hauen inplikazioa hauteskunde garaian buruturiko 3. agerraldian, hurrengo ikasturteko plangintzaren inguruko saioak izan dira, besteak beste, azken hilabete hauetako eginkizunak.

EKBrekiko harremanak utziak genituen aspaldian, bertako partaideak izanda ere, bileretara joateko zailtasunak izan baitira. EKBk iraunkorrean parte hartzeko saiakerak egitearen beharra plazaratu zuen taldean eta bertan egoki ikusi ere. Hurrengo ikasturteari begira berriro hartu behar dugun gaia izango da, beraz.

EUSKARAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN ARTIKULAZIOA AURRERANTZEAN

Orain arte emandako azalpenetan argi ikusten da euskararen aldeko mugimenduak nekez egiten duela aurrera. Egoera honek eztabaida eta analisi prozesu batera eraman gaitu. Eztabaida hau ez dugu erabat bukatu eta jarraian azalduko ditugu ildo nagusiak:

PLATAFORMAREN EGITURARI DAGOKIONEZ.

1995eko maiatza-ekainean eztabaida prozesua ireki zen eta asmoa da egindako proposamenak iraila-urrian eztabaidatzea eta egokiak direnak onartzea.

a) Pertsona bat aukeratzea (liberatu bat) taldeen arteko koordinazioa sendotzeko eta lanen jarraipena egiteko ardura izanen duena.

b) Laguntza juridikorako zerbitzua: Urrian martxan jarri da. Abokatu bat arduratzen da honetaz, eta asmoa da aholku juridikoak eta salaketak zerbitzu

honen bitartez antolatzea.

d) Barne boletina edo «aldizkaritxo». Partaideen arteko komunikazioa ziurtatzeko. Honen bidez ezagutzera eman nahi dira egiten diren lanak eta plataformak ikasturterako gauzatu duen egitasmoa edo / eta plangintza.

e) Taldeen parte hartzea eta inplikazioa eztabaidatu nahi da, urteko plangintzak gauzatzeko zail suertatu baita oreka aurkitzea. Burutu diren lan gehienak aurrera atera dira partaide batzuek inplikazio handia izan dutelako, eta gainerako partaideak aldiz, ondoren mugitu dira. Baina horiek «nekatzen» zirenean lanak moteldu dira. Arazo hau nola gainditu aztertu beharreko oinarritzko puntua da.

f) Artikulazioa Euskal Herri mailan. Hemen ere partaidetzak boladaka eman dira. Asmoa da koordinazioa liberatuaren bidez martzan jartzea, ondoren partaide guztien inplikazioa lortzeko.

EDUKINARIDAGOKIONEZ

a) Eginen den plangintzan kontuan hartzea orain arte egindako lanak.

b) 23 puntuak aldarrikatzen segitzea. Aztertuko da ea dauden bezala egokiak diren edo zerbait aldatu beharko den. Dena den, azken urteetan euskaldunen egoerak berdintsu segitzen duenez, ez dugu uste aldaketa sakonak egin beharko direnik.

d) Garrantzitsu ikusten da taldeak berak bestelako inizatibak hartzea. Erabilera bultzatzeko sentsibilizazio kanpaina proposatu da hurrengo ikasturteari begira, non talde guztien inplikazioa bilatuko den.

e) Gobernuan egin diren aldaketek eragina izango dute ziur aski. Gobernu hirukoitza osatu da (PSOE, CDN eta EA) eta IUk aldeak botoa eman zuen. EAK eta IUk behin baino gehiagotan adierazi dute OINARRIAKek planteatzen dituen puntuak onartzen dituztela. Beraz, aurrerantzean, gauzak hobetzen ahal direla pentsatzeko arrazoiak egon badaude. Honek, noski, segimendu zehatza eta alderdiekiko harreman iraunkorrak izatea eskatzen du.

f) Nazio mailako kanpainen jarraipena eta, egin behar izatekotan egokitzea Nafarroako errealitate kontuan harturik.

Hauek dira OINARRIAKek heldu den hilabeteetan segituko dituen ildo

**«Burutu diren lan
gehlenak aurrera atera
dira partaide batzuek
inplikazio handia izan
dutelako, eta gainerako
partaideak aldiz,
ondoren mugitu dira»**

«Orain arte lan gehiena egiten diren erasoei erantzuna ematea izan da. Ez da berezko lanik egin eta agian ez dugu bereizi talde eragilearen eta OINARRIAK plataformaren artean egon beharko lukeen aldea»

nagusiak. Artikulazioaz gehiago esatea oso zaila da oraingoz, Plataformaren etorkizunaz eta egituraketaz mintzatzen ari baikara, baina ziur aski arestian azaldutako eskematik abiatuko da hurrengo urteen lana. Amaitu baino lehen, egoki iruditu zaigu orain arteko bidean aurkitutako alde onak eta arazoak azaltzea:

Alde onak

a) Gorabeherekin baina taldea azken bost urteetan aurrera egiteko gai izan da. Horrek adierazten du jendeak proiektuan sinesten duela eta aurrera egiteko proposamenak ilusioz hartu izan dira.

b) Taldeen arteko harremanak onak dira eta orain urte batzuk egon zitekeen konfidantza eza desagertu egin da.

d) Talde batzuk arazo koiunturalak direla medio denbora asko parte hartu gabe egon ondoren berriro ere bileretara joaten dira.

e) EKBk iraunkorrera joateko egin duen proposamena ongi hartu da eta ahaleginak egiten dira aurrerantzean.

f) Udal Euskara teknikariek koordinazioa areagotzeko prestutasuna azaldu dute, teknikariak dauden herrietan lan polita egin daitekeelarik.

g) Hainbat arazo liberatu bat egonda asko arinduko lirateke, eta funtzionamendu hobea lortuz gero parte hartzea eta inplikazioa ere hobetuko da dudarik gabe.

Arazoak

a) EAE, Iparralde eta Nafarroako legeriak eta egoera soziolinguistikoak oso ezberdinak dira. Lurralde batean egokia den zerbait besteetan gehiegi izan daiteke. Beraz, nahiz eta goi mailako definizioa denontzako berdina izan daitekeen, erritmoak eta lanak leku bakoitzera egokitu behar dira.

b) OINARRIAK ordezkarien bilkura da. Lana oso zail suertatzen da ardurak banatzean parte hartzen duten taldeen egoera oso ezberdina delako. Talde batzuek partaide asko dituzte eta egitura oso hedatua, beste batzuk, aldiz, talde txikiak dira eta partaideen borondatearen morroi dira.

d) Orain arte lan gehiena egiten diren erasoei erantzuna ematea izan da. Ez da berezko lanik egin eta agian ez dugu bereizi talde eragilearen eta

OINARRIAK plataformaren artean egon beharko lukeen aldea.

e) Herrietan ez da koordinaziorik lortu eta kanpainaren bat egiterakoan, hutsune nabariak somatzen dira hara iristeko.

f) Talde eragilerik eza Iruñean. OINARRIAKek koordinazio lanak egiteaz gain askotan dinamizatzailereana egin du. Honek arazoak ekarri ditu (b puntuaz azaltzen da zergatia). Hiriburuaren garrantzia ikusten da baina Plataformak ezin du bete talde eragile baten lana. Momentu honetan talde eragilearen sorrera gauzatzen ari da. Euskaldunen konpaktazioa ezinbestekoa da aurrera jo nahi badugu. Talde eragileak mesedea egin diezaike OINARRIAK plataformari, plangintzak egiterakoan helburuak argiago izanen baitira. Beraz, lanean hasi arte itxoin beharko dugu.

g) Koordinazioa Euskal Herri mailan. Saioak egin dira eta hasiera batean bileretara joaten zen baina ez da lortu iraunkortasuna.

OINARRIAK prozesu honetan murgilduta dago. Argi dago denon lankidetzaz eta adostasuna beharrezkoa dela proiektua aurrera eramateko, euskararen egoera ez baitago txantxetan ibiltzeko moduan. Euskaltzale eta euskaldun guztion arduraz da martxan dauden proiektuak laguntzea (bakoitzaren ahalmenen arabera, noski). Alde txarrak ikusten baditugu ezin dugu itxaron porrota iritsi arte gero «bagenekien» esateko. Euskararen normalizazioa lortzeko bide eta aukera guztiak uztargarriak dira. Hori izan da Plataformaren filosofia eta euskalgintzan aritzen garen guztiok hau argi baldin badugu, aurrera aterako dira gure egitasmoak, bai OINARRIAKen bai etorriko diren proiektu eta talde guztietan.

**«Alde txarrak ikusten
baditugu ezin dugu
itxaron porrota iritsi
arte gero «bagenekien»
esateko. Euskararen
normalizazioa lortzeko
bide eta aukera guztiak
uztargarriak dira»**